

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Hasierako onespena ematea Eltziegoko udalerriko 6 poligonoko 353 partzelaren a), b), c) eta d) azpipartzeletan ardo upategi bat jartzea xede duen plan bereziari

Udalbatzak 2018ko azaroaren 2an egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion Eltziegoko udalerriko 6 poligonoko 353 partzelaren a), b), c) eta d) azpipartzeletan ardo upategi bat jartzea xede duen plan bereziari. Bodegas Casa Primicia, S. Ak sustatu du plan hori eta Beatriz Martinez Fernandez arkitektoak, Jesus Ilarraza Ramirez agronomia ingeniariak eta Javier Mateo Argomaniz nekazaritzako ingeniari teknikoak idatzi dute.

Plan berezi hori eta horretarako izapidetutako espedientea jendaurrean egongo dira hogeitun egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn eta lurraldean gehien saltzen den egunkarietako batean azkenengoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eragindakoek aztertu eta egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, halaxe xedatzen baitu Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 95.2 artikulua.

Eltziego, 2018ko azaroaren 6a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE